

# Karkara

*karkara.com*

❖ Orioko eta Aiako aldizkaria · 2014ko abuztuaren 29a · 353. zenbakia. 26. urtea



## San Donatoak eta San Lorentzoak

Ekintzez josi zen Aia abuztuaren 2tik 10era. Haurrek, gazteek eta helduek bat egin zuten kalera irten eta herriko festez gozatzeko.

**08**

**Elkarrizketa**  
Joseba Orella

**14**

**Erreportajea**  
Frakinga

**26**

**Akuilua Hartuta**  
Peru Iparragirre

**28**

**Mahai-ingurua**  
Arraun denboraldia

HEGUTEGIA  
**PATXI OLIDEN**  
HEGUTEGIA

Hemengo haragia.  
Eteko produktiak: tripa, edalki,  
txokona, txarizo, kroketak...

**PATXI OLIDEN**

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

Ile apaindegia  
**MARIJO**  
Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8-bajo  
Tel. 943 13 47 29  
Orio

*elbaritegia*  
**ANTILLA**  
*juleta*

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 09

**Carmen eta Txomin**  
ARRANDEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

ZABALIKI  
PROBATU  
EZAZU!

PIZZERIA  
KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10  
TELEFONOA: 943 24 89 46

**Katu  
Moria**  
OLIBOITAGITZA PIZTUNA

ESTROPALARI, 10  
20810 ORIO  
Tel. 943 11 66 99

LORRIONDIK  
688 89 11 29

www.katumoria.com

**IGLESIAS  
SARRILAGILEAK**

24 orduko zerbizua

Javier Iglesias Fernández  
637 723 308  
iglesias@rajaerosifaloo.es  
20810 ORIO

- ATAK INKIZIEN OTTUO
- SARRILA-ILINDO ALDAKETAK
- ATAK IKTINO MALDURRI ALDAKETA
- KOMUNITATERITZANO ZERBITZUA

**libe**  
dietetika  
elikadura aholkularitza

eusko gudarak 35 - ORIO  
(sarrera Arantzale kalean)

943 53 64 94 - 697 23 86 56  
libegamendia@gmail.com

RESTAURANTE  
**Gaberna**

**MARISKADA**  
33,50€

Tel: 943890416

**AIRIDATA** modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 86 • 20810 ORIO

*Lizaso*  
dekorazioa

Tf:  
943 83 07 84

Faxa:  
943 24 87 15

Eusko Gudari, 48

**mauka**

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL - 943.572083  
FAX - 943.571190  
lasenjo@hotmail.es

INES ASENJO  
IBAI ONDO 13  
20810 ORIO

351

# Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

## Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

## Editorea

Karkara taldea  
kultur elkarte

## Zuzendaria

Lore Berasaluze

## Erredakzio taldea

Onintza Aiestaran,  
Olatz Artola,  
Miriam Garcia,  
Iñaki Iturain,  
Idurre Lizarralde,  
Elizabete Manterola  
eta Rikardo Uzkudun

## Publizitatea

Idurre Telleria

## Ale honetako

**boluntarioak**  
Manu Etxeberria,  
Peru Iparragirre,  
Garbiñe Manterola eta  
Eukeni Santamaria

## Diseinua

Saioa Perona

## Banatzailleak

Nora Pielago eta  
Leire Zinkunegi (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

## Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako  
esanen edota iritzien erantzuz-  
kizunik. KARKARAN argitaratu-  
takoa berremen daiteke,  
osorik edo zatika, baldin eta  
iturria aipatzen bada.

TOKIKOM

## LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala



Eusko Jauriritza  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



ANDONI CANELLADAREN ARGAZKIAN OINARRITUTA

# HASI BERTSOTAN

ANTONIO ZUMETA "TXANKA" (DOINUA: LORIAK UDAN)

**1**

Aspalditxuan ixilik nagon  
hastera noa kantari  
arrazoi txarrik eman gabe ta  
albaldinbadet inori  
ixilik negoen bai egia da  
baina egin naiz erori  
da ukuitu bat eman behar diot  
Orioko arraunari.

**2**

Nere iritiz aurtengo Kontxa  
ez dago oso erraza  
lau traineru alkarren hurren  
oso indartsu dabilta  
ez dakit zeinek aterako dun  
hoietan Kontxako gilitza  
Makazagaren mutilekin guk  
badaukagu esperantza.

**3**

Ya kontatuzten hasi gerade  
orduak eta egunak  
estropadetan oriotarrak  
guziok gera lagunak  
beste trapu bat ekarriko du  
lehenago asko dauzkanak  
aupá Orio esango degu  
ta zuek altxa arraunak

Publizitatea kontratatzeko:

**Karkara**

688 859 682 (Idurre)

publizitatea@karkara.com



karkara.com

## Aranzadiren SEMBET proiektua Orion

Aldaketa sozialak direla medio, belaunaldiak elkarrengandik urruntzen ari dira eta gainera, espazioa eta bizipenak partekatzeak guneak urriak dira. Beraz, tokiko komunitate batean pertsona nagusiek belaunaldi berriei memoria soziala transmititzeko gero eta abagune gutxiago dago.

SEMBET proiektuak, pertsona nagusiek iraganeko hamarkadetan bizi izandakoaren testigantzen bidez memoria soziala berreskuratzea eta partekatzea du helburu. Era honetan, ondorengo belaunaldien formatzaile bihurtuko dira, bestela galdu egingo litzatekeen eguneroko bizimoduaren memoria transmitituz.

Orioko historiak arrantzarekin zeri-kusi estua du, anguleroekin bereziki. Ogibide zaharra oriotarren memoria pertsonal eta kolektiboaren zati garrantzitsua da, eta memoria hura babestea ezinbestekoa da komunitatearen nortasuna eraikitzeke. Honela, belaunaldi arteko memoria lantzen duen SEMBET proiektu europarra Orion egingo da 2014ko irailean.

Adinekoak izango dira ekimen honen protagonista; lau tailerren bidez hainbat gai jorratuko dira: anguleroen historia, emakumeen garrantzia arrantzan eta gaur egungo gizartean edatetuen eta gazteen arteko harremanak. Tailerrak pertsona nagusiekin – 65-75 urte- eta gazteekin – 20-40 urte- egingo dira.

Esperientzia pilotu honetan parte hartu nahi? Oriotarra bazara, 20-40 edo 65-75 urte artekoa eta euskalduna, deitu 943 466 142 zenbakira edo idatzi Aranzadi Zientzia Elkarteko komunikazioa@aranzadi-zientziak.org helbidera.

Proiektuak nazioarteko izaera du: Italia, Polonia, Eslovenia eta Errumaniako taldeak ditu partaide. Guztiek gizarte-memoriarekin lan egin edo adinekoen hezkuntzarako jarduerak burutzen dituzte. ■ **Mikel Edeso.** Aranzadi Zientzia Elkartea

## Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARA bere egiten du eskutiaz laburtzeko eskubidea.

## Kofradia zaharraren egoerari buruz

Argitaratutako azken KARKARAN, Kofradiaren eraikinari buruzko berrian hutsune bat sumatu dugu. KARKARAK prestatutako hasierako azalpenaren ondoren, udaletxean dauden talde guztien irudipenak daude, baina Kofradiarena ez. Honen bitartez, Kofradiak bizi-zen ari denaren berri eta duen ikuspuntua herritarrei azaldu nahi diegu.

Lehenik garbi utzi nahi dugu, betidanik Kofradiaren nahia eraikina eta bere ingurua txukun egotea dela.

Horregatik, eta kontutan hartuz aurretik izandakoak –dorrearen eraiketabarne-, orain dela 10 urte –2004an-, hasi ginen lanean eraikinari konponketa on bat eman nahian.

Hasteko erabaki genuen eraikinaren bere benetako egoera jakitea. Azterlan bat egin ondoren jakin genuen 1926 urtean eraikitako eraikinari, lurpeko baldintzak medio eta zimendu motagatik, urtetan zehar bere inguruan egindako jarduketak eta ekintzak guztiz eragin diotela: hegoaldeko ibaiaren dragatu lanak eta moilaren egoera eskasa, iparraldeko estolderiaren arazo larriak –ur ihesak sortzen dituztenak, sarearen desoreka ur gazia barnera-

tzen duelako eta behin behineko konponbidea beharrezkoa duena. Gipuzkoa Urak lanean hasi da – eta mende-baldetik itsas-etxea eraiki izana. Ondoren, peritu eta jakindun desberdinen artean konfirmatu da hori.

Hori ikusita, udaletxera joan ginen irtenbide egoki bat aurkitu nahian eta harrera onez hartu zuten gaia. Lan prozesu sendo baten ondoren, 2005ean Kofradia eta Udaletxearen arteko hitzarmen bat sinatu zen helburu hauekin: Kofradiaren aldetik iraunkortasuna lortzea eta Udal aldetik, herriarentzako Arrantza kalea zabaltzea Alde Zaharraren trafikoa hobetzeko, estolderiaren konponketa bideratzea eta eraikinaren itsas-aldea hiri erreferentzi bezala berreskuratzea, dorre eta guzti. Gaur egun, bien arteko helburuak mantentzen dira.

Bere garaian, Alde Zaharreko Plan Berezia idazterakoan Udalak hartutako konpromisoak barneratu zituen. Plana tramitatu eta behin betiko onarpena lortu zuen administrazio desberdineko beharrezko erakundeek onartuta. Bitartean, denbora pasa eta Kofradiko eraikiaren egoera kaskartzan joan zen. 2010ko udaran kalean zulo bat agertu zen eta berehala, eraikinaren ipar ekialdeko izkina pitzatzen hasi zen. Urte bukaeran Udalak eraikinaren aurre-egoera adierazi zuen, denen arteko beharrezko segurtasun neurriak hartuz.

Hortik aurrera, eta beharrezko baimenak lortu nahian, Kofradiak bere kontsultak egin zituen erakunde arduradun guztiekin: Udala, Eusko Jaurlaritzako Portu Zuzendaritza, Kosta Zerbizuekin eta Eusko Jaurlaritzako Ur Agentziarekin. Denen hasierako hitzak onak izan ziren eta 2011n Kofradiak proiektua prestatu zuen legearen arabera Orioko Alde Zaharrean Plan Berezia errespetatuz, behar den bezala. Hala dio Udalak.

Hortik aurrera historia aldatu egin zen. Tramitazioko unean izandako hainbat bileratan ahoz ontzat emandakoa, idatziz kontrakoa bihurtu da. Orain batzuk esaten dute oinarritzat

hartu beharreko Planak esaten dituen betebeharrak batzuk, Kosta Zuzendari-tzako legearen aurka daudela eta onartezina dela. Ulertezina. Lege berdinarekin Aita Lertxundi, 38 –Aterpe taberna, 1999– eta Ibai Ondo 1-10 –Salatxo taberna, 1992-1993– eraiki dira.

Egun, Kofradia erakunde publikoen arteko gatazka baten barne dago ontzat emandakoa orain batzuk onartu nahi ez dutelako. Esandako hitz onak eta baikorrak azken erabakiak hartzerakoan ezkorrrak bihurtu dira eta gure eskubideak defendatzeko dauden pauso guztiak bete ondoren, epaitegieta-raino iritsi gara gai hau onartu beharko lukeen Eusko Jaurlaritzako Ur Agentziaren aurka.... gu bakarrik. Eta bitartean denbora aurrera doa.

Erakunde publikoek onartzen dute moila gaizki dagoela, hondatzen ari delako. Onartzen dute estolderiako sarea

gaizki dagoela –berez, behin behineko soluzioa emateko lanekin hasi dira– eta Arrantzale kalea hondoratzen ari dela aldameneko eraikinak eta urbanizazioa afektatuz. Arazoa ez da Kofradiarena soilik.

Gure herriko Alde Zaharrean dugun ingurune hau txukuntzeko eta berri-

tzeko denon arteko irtenbideak behar ditugu eta ez erakunde publiko edo elkarte politikoen arteko gatazkak. Ea denon artean onartuta eta indarrean dauden helburuekin, herrigune bizi eta hobetoago bat lortzen dugun. ■ **Santiago Peiro Iruretagoiena**, Orioko *San Nikolas* Arrantzaleen Kofradiko Presidentea



## ■ ZORIONAK!

### *Karkara laguntzaileei*

**U**rte bat gehiago egin du KARKARAK, hogeita bosgarrena aurtengoan. Mila gauza dira eskertu beharrekoak, eta beste mila zoriontzekoak. Zoriondu nahi ditugu, eta eskerrak eman bihotzez, urte guzti hauetan laguntzaile diren eta izan diren guztiei, hor egoteagatik eta KARKARA aurera ateratzen laguntzeagatik.

Eskertzeaz gain, ohar bat helarazi nahi die KARKARAK laguntzaileei. Aurtun, aldaketak direla eta, kuota ikasturte hasieran pasatuko da. Beraz, irailean zehar 36 euroko kuota pasatuko da laguntzaileen kontu korronteetatik.

## ■ JAIOTAKOAK

- Alen Redondo Britt, uztailaren 15ean.
- Oihan Kaperotxipi Oliden, uztailaren 16an.
- Peru Elias Egibar, uztailaren 22an.
- Thiago Luis Florido, uztailaren 29an.
- Luka Redondo Balerdi, uztailaren 29an.
- Unax eta Ander Perez Uriarte, abuztuaren 5ean.
- Laia Garrido Elustondo, abuztuaren 9an.
- Hegoi Arrillaga Gozategi, abuztuaren 13an.
- Ane Sagastibeltza Lertxundi, abuztuaren 10ean.

## ■ HILDAKOAK

- Juan M<sup>a</sup> Urbieto Burgaña. Orio, abuztuak 6. 80 urte.
- Juana M<sup>a</sup> Atorrasagasti Manterola. Orio, abuztuak 5. 66 urte.
- Orosia Gomez Nuevo. Orio, uztailak 23. 87 urte.
- Lorenzo Lizaso Zulaika. Aia, uztailak 19. 74 urte.
- Agustin Illarramendi Roteta. Orio, uztailak 5. 56 urte.

## ■ EZKONDUTAKOAK

- Josu Garmendia Perez eta Nagore Uranga Gama, uztailaren 1ean.
- David Salvador Garciano eta Maier Irazusta Agirre, uztailaren 5ean
- Ignacio Pardo Galtelumendi eta M<sup>a</sup> Estrella Garcia Alvarez, uztailaren 10ean.
- J. Antonio Urain Makazaga eta Arantxazu Santano Felipe, uztailaren 13an.
- Graciano Manterola Bereciartua eta Marina Noelia Casas Queipo, uztailaren 22an.
- Ander Errasti Arruti eta Munia Larburu Gurrutxaga, uztailaren 24an.
- Jose M<sup>a</sup> Otamendi Gaztañazpi eta Izaskun Lasa Mendioroz, uztailaren 26an.
- Xabier Korta Artola eta Jone Iruretagoiena, abuztuaren 2an.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

**943 83 15 27**



Orioko sanpedroetan haurrak jolasean Tringili-Tringolorekin . KARKARA



Bisigua dastatzea festa bihurtu da Orion . KARKARA



Aiako San Donato eta San Lorentzo festak. KARKARA

# Udan festarik festa

“Irailaren atarian hasi da atzerako kontaketa, bai arraunlarientzat, bai lanera bueltatu behar dutenentzat”.

**E**guraldi onarekin batera etortzen dira herrieta-ko festak udaran; nonahi izaten dira santuen omenezko ospakizunak. Ekaina festetan murgilduta agurtu genuen, eta sanpedroekin eman genion hasiera uztailari.

Sanpedroak Orion eta sanpedroak Aian, Elkano eta Andatza auzoetan. Traka zaratatsiak eman zituen amaitutzat sanpedroak, eta isiltasunean hasi ginen parrilan erretako bisigua usaintzen.

Orioko plaza jatetxe erraldoi bihurtu zen, eta hamaika aukera izan zen festan murgiltzeko. Dastaketak, lehiaketak, estropadak, bisigu zirkuitua eta otorduak. Lau egun piztuta mantendu eta gero, igandearekin itzali ziren parrilak.

Parrilak itzali eta festarako gogoia piztu zen Aiako Santio Erreka auzoan. Auzotik kaskora pasa zen testigua, Santioak amaitu eta San Donato eta San Lorentzoak hasi baitziren.

Mila salto eta dantza Aiako jaietan, lasaitasuna etorri zen horiek amaitutakoan. Batzuk oporretan eta besteak etxean, herria hustu eta hondartza zein pistina bete zen, udazkena zirudien udak uzten zuen neurrian.

Festagirosa ez da erabat desagertu, ordea. Kilometroak gerturaten ari direla-eta, kirola festa bihurtu zen futbol eta eskubaloi partidekin. Gipuzkoako talde handiak elkarren artean jarri ziren ikastolen alde egiteko.

Festarik festa ibiltzeko beta izan da uda honetan. Irailaren atarian Donostiako Kontxa estropadak ditugu ate joka, batzuek uda osoan burutik kendu ezin izan duten bandera dago jokoan. Hasi da atzerako kontaketa, bai arraunlarientzat, bai lanera bueltatu behar dutenentzat. Gero eta gutxiago dira egutegian markatu gabeko egunak.

# Zer egingo du Oriok Kontxako estropadan?



“Zarauzko estropada Kontxaren ispilua izan daiteke”

**Z**arauzko estropadan gertatutakoa Donostian ikus daitekeena-ren ispilua izan daiteke. Batek bi olatu hartzen baditu bandera erraz irabaz dezake.

Bigarren txandan gertatutakoa ere har daiteke eredu bezala, bi segundoren barruan lau traineru iritstea lehia bizian. Hori da nik ikusten dudana. Bali-za txarra egokituz gero ez dago zereginik, nik uste hor dagoela estropadaren gakoa.

Orio ondo ikusten dut, beste edozeinen pare, aukera sortzen bazaio irabazi egingo du. Liga zailago ikusten dut, baina Kontxan aukerak ditu. Lau koadrila daude, eta Orio denetan gehiena gustatzen zait.

**Joxe Mari San Sebastian**



“Konfiantza handia dut gure arraunlariengan”

**E**stropada ona egingo duela uste dut, eta irabaztea espero dut. Azken estropadan egin zuena baino gehiago da Orio. Konfiantza handia dut gure arraunlariengan.

Beste taldeak ere oso onak dira, Hondarribia adibidez, beti hor dago. Bizkaitarrak ere oso indartsu daude. Guztiak maila antzekoan daude eta oso parekatuak egongo dira bi jardunaldiak. Talde onak daude.

Beti gogoan dut Oriok segundo baten bostenagatik bandera etxera ekarri zuen hura, duela urte asko. Inork ez zuen uste irabaziko zutenik, eta poz handia eman zioten herriari.

Kaleak, haizeak... gauza horiek ere baldintzatzen dute.

**Eugeni Errazkin Esnal**



“Kontxa zaila izaten da batzuentzat eta besteentzat”

**K**ontxa beti izaten da zaila, bai batzuentzat eta bai besteentzat. Aurten maila oso handia dagoela uste dut.

**O**so estropada berezia da, bi jardunaldi baititu. Bi estropadetan tokatzen den eguraldia, tanda eta kalearen arabera denetik pasatu daiteke. Zorte kontua da askotan, tanda batetik bestera aldea egoten da, Hondarribian bezala adibidez. Urdai-baik lehen tandan jokatu zuelako irabazi zuen.

Nik uste dut Kontxarako lau txalupa daudela puntan ibiltzen direnak, eta lau horietatik batek asmatzen badu, hark irabaziko du. Guk, oriotarrak izanik, esperantza dugu Oriok irabazteko.

**Eduardo Elizondo**

**ITZALA**  
kartolan jokatzeko arropak  
tel. 943.83.12.59

**ITSASADARRA, S. L.**  
Jose Angel Iradi Udabe  
aseguru artekaria  
finika administratzailea  
gestoria  
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa  
Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 98 itsasadarra@itsasadarra.com  
Ibai Ordo 4, behea, 20810 Orio

**kutixi**  
kafetegia  
GOSARI GOWOK  
Arizaga 9, 20610 Orio  
Tel: 945 13 15 17

# “Hainbeste herritarrekin elkarlanean aritzea aberasgarria da”

**Joseba Orella**

Kilometroak 2014ko koordinatzailea

Hilabete bat baino zertxobait gehiago falta da urte osoan egindako lanaren fruituak ikusteko. Egitaraua bideratua dago eta azken xehetasunak lotzea besterik ez da geratzen urriaren 5eko festa handirako.

**M.GARCIA**

2004an Orioren eta Zarautzen artean antolatu zen Kilometroak jaialdia. Olatu berria pasatu zenean galdera bat geratu zen oriotarren buruan bueltaka: *gurea bezalako herri txiki bat gai izango al litzateke bera bakarrik Kilometroak bezalako jaialdi jendetsua antolatzeko?* Hamar urte geroago etorri zaio erronka hari aurre egiteko aukera herriari. Joseba Orella, Kilometroak 2014ko koordinatzailearen ustetan, Orio sobera gaingaitzen ari da ikasgaia.

**Bost gunetan banatu duzue ibilbidea. Zer nolako eskaintza egongo da bakoitzean?**

Zirkuitua eta gunek prestatzean, helburu nagusia jendeak zirkuitu osoa egitea izan da. Helburu horrekin osatu dira guneetako egitarauak.

Lehendabiziko gunean, Ikastolan, oholtza gaineko eskaintza guztia Oriotik sortua izango da. Irekiera ekitaldia ere hemen izango da, eta eraikin berrian familia girora bideratutako gunetxoak egongo da.

Bigarren gunean, San Martinen, eguerdira bitartean gazteentzako eskaintza egongo da, hainbat kontzerturekin. Bazkalostean, berriz, eskaintza hori laugarren eta bosgarren gunetara pasako da. Bi horiek izango dira egun amaieran kontzertu potenteenak jasoko dituenak. Hirugarren gunea, hondartzakoa, batez ere haurrei bideratukoda, eta Abaromendi kalean, formatu txikiko ekitaldiak egongo dira.

**Nola egin jendeak ibilbidea hasi eta buka dezan?**

Euskadi Lagunkoia izeneko ekimenaren baitan Kilometroak Lagunkoia egingo dugu: sarreretan informazioa banatu eta ibilbidean zehar hamar informazio panel egongo dira. Orioko leku konkretuei buruz herriko adineko pertsonen eskutik jasotako informazioa eta argazki zaharrak jasoko dituzte panelek. Oriori buruzko informazioa eta bertako hizkera erakustea da helburua.

**Erronka ere egongo al da?**

Tolosan izan zuen arrakasta ikusita beste lurraldeetara ere zabaldu da, eta Orion ez dugu zalantzarik izan egingo dela.

Gipuzkoako ikastola guztietako DBH 3 eta 4. mailako ikasleei emango zaie parte hartzeko aukera. Mendibeltz zelaian jokatuko dute lehen proba eta gero, lehenengora izan ezik, gune guztietara zabalduko da erronka.

Egitarauaren erdigunean kokatzen den ikuskizuna da Erronka. Gaztetxoek parte hartzeaz gain, jendeak ikus dezan. Arratsaldean jokatuko da finala, autopista azpian, uretan. Bukatzen denean, kontzertu potente bat egongo da gune horretan.

**Ze kontzertu entzun ahal izango dira?**

Kontzertuak osatzeko garaian Orioko eta inguruko taldeei eman zaie lehentasuna; oso ezagunak ez diren talde batzuk egongo dira bertan. Baina eskaintza potente bat ere egin





Joseba Orella Kilometroak 2014 Jaiaren koordinatzailea .KARKARA

“Jaia Oriora ekartzeaz haratago, Oriotik eraikitzearen ideiarri helduz, bertako eta inguruko taldeei eman nahi izan diegu lehentasuna.”

nahi genuen, eta Euskal Herrian puntaren puntan dauden taldeek ere joko dute.

Oholtza gainekoaz gain, zirkuituan zehar beste motatako eskaintzak ere indartzen saiatu gara. Guneetara mugatu gabe, herri guztira zabaldu nahi da festa.

Bestalde, urte osoan zehar saiatu gara herriko eragile guztiak elkarlana bideratzen eta egun bererako ere, musika taldeez gain, badaude zenbait eragile oholtza gaineko emandialdiak edota zirkuituan zehar hainbat ekintza egingo dituztenak.

#### **Nolakoa izan da jendearen erantzuna?**

Urte osoan zehar herritarren erantzuna oso ona izan da; antolatu ditugun ekimenetan parte hartze handia egon da eta antolakuntzan ere jende asko agertu da lanerako prest. Momentu honetan mila pertsona baino gehiago daude egunean bertan lan egiteko izen emanda. Baina badira oraindik osatu gabe dauden batzorde batzuk. Bestalde, urriaren 5ean izango da festa eguna, baina urriaren 6a garbiketa egiteko ordua da. Herritar guztiei zabaldu nahi diet deialdia.

#### **Festa egunean nola egongo da trafikoa?**

Donostialdetik autobidez datozen autoek ezingo dute Orion irten, baina herritik autobidera sartu ahal izango da. N634 errepidean, Zarauztik Aginagara bitartean sarrera mugatua egongo da; bertakoentzat soilik egongo da irekia. Kanpotik datozenentzat Zarautzen, Urbilen eta Belartzan aparkalekuak eta autobusak egongo dira.

Dena den, garraio publikoa erabiltzea gomendatzen dugu antolakuntzatik. Tren eta autobus zerbitzuetan erreformatuak egongo dira.

#### **Zein mezu eman nahi diezu herritarrei?**

Egunari begirako antolakuntza eta muntaiarekin herritarrei ahalik eta traba gutxien jartzen saiatuko gara. Iraila erdialdean hasiko dira muntaketa lanak. Zirkuitu eta guneak jartzeko hainbat aparkaleku desgaituko dira, adibidez, eta horiei alternatiba emango diegu. Hurrengo asteetan informazio zehatza helaraziko zaie herritarrei.

Egun bertarako, herritarrei eskatzen diegu ahal dela autorik erabili ez dezaten. Eta erabili behar badute bezperan zirkuitu eta guneetatik kanpo uzteko eskatuko zaie. Garajeak dituzten herritarrek ere bertan sartzen badute eskertuko dugu. Edozein zalantza izanez gero, nirekin kontaktuan jar daitezke kilometroak14@ikastola.net helbidean edo ikastolara deituz.

#### **Nolakoa izan da Kilometroak jaialdia antolatzea?**

Pertsonalki esperientzia ikaragarria, errepika ezina izan da. Hainbeste herritarrekin elkarlanean aritzea aberasgarria da, oso.

Gainontzean, uste dut herritar askok urte osoan zehar txalotzeko lana egin duela. Askoz gehiago egin beharko da baina ilusioarekin ari gara guztiok. Urte osoan lanean egon den jendeari antzematen zaio gogo handia duela motorrak bertu eta urriaren 5ean egun polita egiteko.

Urte osoan zehar antolakuntzan izan dugun giro bikaina ere azpimarratuko nuke. Lanean festa giroa nagusitu da eta urriaren 5ean ere hala izango da: milaka lagun, herritar, Ikastolaren alde lanean eta jai giroan jardungo da.

**Izarra Bideoa**

**AURREZTU**  
**- % 60**  
**TONERRA**  
hemen bete ezkerro

16 GB / 32 GB  
**9 € / 13 €**  
Kingston

**329 €**  
HP  
500 GB

zure kreditu txartela  
**DOAN**



Philips  
Full HD



27" **155 €**  
32" **255 €**

*eskolara bueltan*

**21**  
hilabete  
interesik gabe



Beko  
5,5 Kg  
1000 r/min **239 €**

**TIEN 21** Eusko gudari, 44 • 943 833 881 **TIEN 21**

**SARASUA ERRETEGLIA**

**Plater bereziak:**

- Arrain zoba
- Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORJO** Tel: 943 83 00 05 / 943 13 25 32

**URANGA**

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net  
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

**Alustiza Autobusak**  
*Alustiza Bidasoa S.L.*

Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99

**PERTSIANAK**

AKO MAZ

Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel: 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

**GARMENDIA**

INMOBILIARIA - ANKLULARITZA - ASIGURUAK

Ibai Ondo, 1  
Tel: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

**Auto Azkue**

**Azkue**

Tf: 943 130 438

**Auto Azkue**

**Sagasti**  
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel: 943 13 00 27  
Fax: 943 53 71 50  
sagasti@sagastileihoak.com  
Amantzele Kalea, 65  
20810 ORIO (Gipuzkoa)

**Joana Murgiondo**  
Asegurari-argentea

**ASEGURUAK**

**CCI**  
CARASSI, CIENZI, LACONTI & CIA. S.R.L.

Abeslari, 4- 2. esk.  
Tfnoa: 943 13 46 07

**OREKA FISIOTERAPIA**

**TENDINITISAK  
LUMBALGIAK  
ARTROSIA  
ZEFALAK ...**

...  
MASAJE TERAPeutIKOA  
BENTOSAK, AKUPUNTURA  
ESKUZKO TERAPIA  
OSTEOPATIA

**943 13 35 37**

ARIZAGA KALEA, 11 BERGIA



GOIURI UNANUE

# “Zer da arrantzarako sarea baino arrantzaleagoa?”

## Goiuri Unanue

Diseinu ikaslea

Kilometroak 2014 Jaiarekin elkarlanean dantza bat sortu eta grabatu du Harribil Dantza Taldeak. Jantziek arrantzale itxura izan behar zuten, eta Goiuri Unanuek hartu du ardura hori.

### OLATZARTOLA

Goiuri Unanueren amona herriko jostuna zen, eta bera amona laguntzen ibiltzen zen. Amonak emandako pausoak ematen ari da orain Unanue, diseinu ikasketak egiten ari baita Bartzelonan. Dantza ere betidanik gustatu izan zaio, eta orain biak uztartzeko aukera izan du.

#### Nola suertatu zitzaizun aukera?

Euskal dantzan ibilitakoa naiz, Bartzelonara joan aurretik Harribil dantza taldean aritzen nintzen. Momentu hartan, ikuskizun berri batekin genbiltzan; Argi-ilunak.

Kilometroei begira dantza bat sortu dute Harribil dantza taldekoek, eta dantza hori bideoan grabatu dute, ikus-entzuzko bat sortzeko.

Nirekin gogoratu ziren dantzariak, eta jantziak egiteko eskatu zidaten. Dantza taldea utzi baino lehen eskuartean genuen ikuskizun horretako jantziak birmoldatzeko eskaria egin zidaten, arrantzale itxura emateko.

#### Eta nola eman diozu arrantzale kutsua?

Ez nuen mahonezko tela sartu nahi izan, itsasoarekin lotzeko askotan erabiltzen baita. Zerbait bereziagoa egin nahi nuen, ezberdina. Eta pentsatzen jarrita, zer da arrantzaleagoa arrantzarako erabiltzen den sarea baino?

Behin erabakita sarea erabiliko nuela zirriborroak egiten hasi nintzen. Pare bat egin nituenean taldekidei erakutsi nizkien. Ideia aurkeztu eta baiezkua eman zidaten.

#### Etagero?

Sare bila hasi ginen baiezkua eman bezain pronto. Marijo Iturzaetak berehala lortu zituen behar adina sare. Gainera, sarea josten ere lagundu zidan. Azkar batean ikasi nuen.

Ondoren zirriborroak hartu eta forma ematen hasi nintzen, *mouflage* teknika erabiltzen.

#### “Dantza taldea utzi baino lehen eskuartean genuen ikuskizun horretako jantziak birmoldatzeko eskaria egin zidaten.”

“Ilusio handia egin dit taldekide ohiekin eta lagunekin aritzea, oso polita izan da. Oso gustura aritu naiz eta oso pozik nago.”

#### Zer da *mouflage* teknika?

Maniki gainean egiten da lan, eta moldaketak manikian bertan egiten dira. Bere forma erabiltzen da sortzeko. Denera bost jantzi egin ditut neskentzat eta hiru mutilentzat.

#### Gustura emaitzarekin?

Nahiz eta erlojupean ibili naizean lanean, oso gustura jardun dut. Ilusio handia egin dit taldekide ohiekin eta lagunekin aritzea, oso polita izan da. Oso gustura aritu naiz eta oso pozik nago.



Olatz Artola

## Ditxosozko orratza

**L**aneguna denez lanean harrapatzen duela, senarraren bizilagunaren koinata behin zorabiatu egin zela, txanda denbora luzez itxaron behar dela, jendaurrean esku-ohian egoteak deseroso sentiarazten duela, orratzak beldurra ematen dietela... horrelakoak entzuten dira hiru hilabetez behin; martxoan, ekainean, irailean eta abenduan.

5.500 biztanleko herria da Orio eta asko dira hiru hilean behin aitzakiak jartzen ibiltzen direnak. 211 da azken urtean odola eman zutenen kopurua, pentsa. Aian 2000 biztanle ingurutik 86 izan ziren medikuarenera odola ateratzera joan zirenak.

Beharra izango balute, ordea, bestelakoak lirateke beren hitzak. Gertukoren batek istripu bat izan eta larrialdietara lehor-lehor eginda eramaten badute, ditxosozko orratzak ez ditu zorabiatuko, ez. Odol beharrean daudenean eskertuko

dituzte odol emaileak; eta emailerik ez balego, kristorenak eta bi esango lituzkete. Biharko egunean jaso nahiko dugunez, eman dezagun gaur.

Kontzientzia lasaitzeaz gain, tentsioaren berri ematen dizute, odola aztertzen dizute, arreta ezinhobea eskaintzen dizute eta tripa ondo beteta itzultzen zara etxera. Tortila pin-txoa, urteko ardo goxoa, ura edo freskagarria aukeran. Hori guztia 10 minutuko denboran.

Irailearen 19an 18:30etik 21:30era ateak zabal-zabalik izango ditu Orioko ambulatorioak, eta urriaren 10ean, sendagilearen etxeak Aian.

***Biharko egunean jaso nahi dugunez, eman dezagun gaur. Kontzientzia lasaitzeaz gain, tentsioaren berri ematen dizute, odola aztertzen dizute eta tripa ondo beteta itzultzen zara etxera.***

Orion odola emateko aukera galdu baduzu, hurrengo hilabetean baduzu Aiako kaskora igotzeko okasioa. Utzi aitzakiak alde batera, kafea hozten plazako terrazan edo umearekin joan zaitezke, eta irabazi dezagun kontzientzian zainetan galdutakoa.





Eukeni Santamaria

## Gure txapel horia

**Orduan joera handia zegoen bandera irabazten zutenean lepoko-zapia ez ezik txapel horia janzteko. Garai haietan Euskal Txapela helduen artean gehiengoak zeraman buruan.**



urreko batean, KARKARA webgunean gure arrunlariei, Galiziako Bueun irabazitako banderaren harira, egindako ongietorria ikusten ari nintzela, gogora etorri zitzaidan gazte denboran gaueko ordu txikiak arte arraunlarien zain egoten ginela herriko zubian. Orduak eta orduak.

Garai hartan, Azkue kontserbak kamioian eramaten zuten txalupa, eta arraunlariak kotxeetan-edo joaten ziren. Orduan ez zen autopistarik, eta Bilbo aldean bandera irabazten bazuten, handik honako joan-etorrian denbora dezente joaten zitzairen. Kostatik etortzea egokitzen bazitzairen, hango herriren batean estropada jokatu eta gero, bidea are eta luze-agoa izaten omen zen.

Baina, guk, garaiz afaldu ondoren, herriko zubiko barandaren kontra jarrita itxaroten genuen; edo Leundako petrilean eserita. Ez genuen inongo presarik izaten, ez horixe! Tarte horretan, gainera, galtzaileak gure herritik derrigorrez pasa behar zutenez, guk *Aupa Orio* oihukatzen genien, ozenki. Atzerapenengatik, behin baino gehiagotan ordu txikietan joaten ginen ohera, baina helburua beteta: gure txapeldunei merezitako ongietorria egitea herriko txarangak lagunduta.

Gaur egun ez bezala, orduan joera handia zegoen banderaren bat irabazten zutenean lepoko-zapia ez ezik txapel horia janzteko. Jakina, garai haietan, Euskal Txapela helduen artean gehiengoak zeraman buruan, gure arroparen parte baitziren. Beraz, txapela beltzaren ordeztu jarri eta *Aliron! Aliron! Aliron!, oriotarrak kanpeon!* abesteko pronto geunden, orduko eran. Egundak, aldiz, kamiseta horia da gehien janzten dena horrelakoetan, edo, bestela, aurreko baten batek zioen bezala: *besteok kolorea barruan daramagu*. Bihotzean, alegia.

Jakingo bazenute zer nolako pozarekin erosi nuen eta ze ilusioarekin ipini nuen nire lehen txapel horia mutil koskorra nintzenean... Oker ez banago, hiru izan nituen gazte denboran; hazten nindoan eran, handixeagoa erosi behar izaten nuen-eta. Eta laugarrena, etxean bitrina batean dago Orio izena beltzez josita daukala, trofeo handi bat balitz bezala, erdi-erdian jarrita ondo ikusteko moduan.

Hainbatetan diogu: *txapela buruan eta ibili munduan*, eserak dioen bezala. Baina...

**LURDES**  
ERRATZEGIA

Eusko Gudari, 4  
Tel. 943 83 00 24

LEUNDA  
OKINGEDIA

ORDUTEGIA

ESTELEKENE TIK - LARRUBATERA 7:00 - 20:30  
16ANDE LIK JAI EGUNETAN 7:00 - 13:30



# Aiako lurra fracking praktiken arriskuan

## TESTUA: OLATZ ARTOLA

## ARGAZKIAK: AIAKO BILDU ETA FRACKING EZ TALDEA

**F**racking. Haustura hidraulikoa. Ez ohiko gasa usiatzeko erabiltzen den teknika. Ama-haitzea apurtzen da; lehenik eta behin, 5000 metro arte bertikalki zulatzen da, eta gero, hainbat kilometro horizontalki. Une horretan ura sartzen da, harearekin eta gehigarri kimikoekin nahastuta, presio handiz, eta haitza apurtzen da. Gasa aske geratu eta atera egiten da.

Texasko gas putzuetan Patxi Lopezek egindako agerraldira joan behar dugu Frackingak EAEn izandako kronogramaren hasieran kokatzeko. Publikoki orduan egin zen ezaguna, baina itzalean aspalditik zeraman gaiak sukaldan.

**2011: Frackinga kalera atera zen urtea**

Urriak 14ean, Patxi Lopezek agerraldia egin zuen Estatu Batuetan, frackinga egiten zuten eremu batean. Prentsaurrekoan aipatu zuen; Arabako hegoaldean gas konbentzionala aurkitu zutela eta datorren udaberrian ateratzen hasiko zirela.

Lan horiek Euskal Herriko enpresa publiko baten eta AEBko enpresa pribatu baten artean egingo zituztela gaineratu zuen. Onura ekarriko zuela gainetsi zuen; independentzia ekonomikoa, besteak beste.

Araba hegoaldeko hainbat elkarte eta talde elkartzen eta mugitzen hasi ziren. Bilkura horietan ohartu ziren gas ez konbentzionalaz eta frackingaz ari zela hizketan orduko lehendakaria.


**Frackingaren inguruko desinformazioa**

Petroleoa ez bezala, lur azpian gasa oso sakabanatuta egoten da. Ez da pilatuta egoten, barreiatuta baizik. Arroka artean egoten da, lur azpian 3.000 - 5.000 metroko sakoneran. Hori zulatu, ondoren zeharka sartu eta presio hidraulikoz -produktu kimikoak eta ura dituen- harkaitza zulatu egiten da eta gas ez-konbentzionala lurrazalaratzen da.

Frackingaren teknika darabiltenek diotenez horrek ez du mendia kaltetzen; hori sakoneraren baitakoa omen da; eta bere erabiltzen duten neurriek ez dute arazorik ekartzen haien hitzetan. Estatu Batuetan, ordea, lur azpian arazoak ekarri ditu, baita lurrazalean ere.



Gasa sakabanatua egoteak zulo baten ordez zulo asko egitea dakar; hau da, zulo batetik ez da behar adina gas eskuratzeko. Horretarako, zulo asko eta asko egin behar dira. Eta gainera, gasa atera ahal izateko ura eta produktu kimikoak sartu behar dira lur barrura, eta horrek lurrari ez dio mesederik egiten.

Frackingaren berri izan zuten Araba hegoaldean eta arazo horri aurre egin behar zitzaioela adostu zuten hainbat eragilek, kontra egin behar zitzaioela. Espainian frackinga egiteko hainbat baimen eskatu zirela jakin zuten. Burgosko, Kantabriako, Kataluniako eta Euskal Herriko hainbat txokotan ere teknika honen bidez gasa lortzeko asmoa zeukaten eta daukate, Aian kasu.



“Lur azpian arazoak ekarri ditu frackingak, baita lurrazalean ere”.

“Flysh beltza da enpresei interesatzen zaien geruza eta Aian aurkitzen dena”.



**Baimenaren nondik norakoak**

Ikertzeko eta esploratzeko hainbat baimen zeuden eskatuta Espainian; eremu ugari hartzen zituena. Plan horrek sei urteko iraupena dauka, hortaz, baimena ematen dutenean sei urtez lanak egin daitezke.

Alde batetik lan teknikoak daude, eta lur azpiko radiografia moduko batzuk egitean datza, geruzak eta harriak aztertzeko. Lan horiekin guztiekin, zuloa egin eta hidrokarburua ateratzeko dauden aukerak mahaigaineratzen dira.

Ondoren, baimen horien baitan, zuloak egiten dira proba modura. Lurra zulatu eta nola funtzionatzen duen ikusten da, frackinga geruza geologiko horretan ondo ibiltzen den jakiten da.

**Aian 2011 eskatu zen baimena**

Landarre baimena. Izen hori dauka Aian *Hydrocarburos de Euskadi* enpresa publikoak-SHESA- eskatu zuen baimena. Euskal Energi Erakundearen -EVE- menpe dago, eta horiek aurrekontu publikoetatik jasotzen dute dirua.

2011 urtean eskatu zen Landarre delako baimena; urte horretako azaroan hain zuzen. Espainiako gobernuak ez du esku-hartzerik baimen horren kudeaketan, Landarre baimena EAEren barruan kokatzen baita. Dena den, itsasoa edo beste erkidegoren bat hartuko balu, Espainiako gobernuaren esku geratuko litzateke. Hortaz, Eusko Jaurlaritzak du hitza, eta oraindik ez du baimena onartu, eta izatez, bi urteren buruan eman beharko luke erantzuna.

**Eusko Jaurlaritzaren baiezkoren zain**

Flysh beltza da enpresei intersatzen zaien geruza geologikoa eta Aian aurkitzen dena. Kostan ikusten dugun geruza hau lur azpian sartzen da eta Gipuzkoa ia osoa zeharkatu ondoren Durangalderaino ailegatzen da. Hortik hartzen duen izena: Durango eraketa.

Arantxa Tapiak, Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomikorako Sailburuak, Landarre baimenarekin presik ez zegoe-la aitortu zuen. Behin Araban zuloak eginda, eta bideragarria dela frogatuta, Gipuzkoako baimenak emateari ekingo ziotela gaineratu zuen.

Baina Arabako formakuntza geologikoa -Balmaseda- eta Aiakoak -Durango- ez dute zerikurisik, beraz, frackingaren aurrean nola erantzungo duen ezin da jakin. Batean teknikak ondo funtzionatu dezake; eta bestean, oker. Asko dira frackingaren inguruko galderak, eta gutxi, erantzunak.

**ZENBAKIA**

**29**

**Udalerri Gipuzkoan.** Hori da frackingaren mehatxupean dauden udalerri kopurua: 29. Bi baimen daude eskatuta Gipuzkoan: Sustrai eta Landarre. Bien artean Gipuzkoaren %40a hartzen dute. Aiari dagokion baimena Landarra da, eta Aiako udalerriaren erdia hartzen du.





**Zarautz**

Hileta Zerbitzuak

- > Hilerrien kudeaketa
- > Hileta zerbitzu orokorrak
- > Zerbitzu iraunkorra



**Harrespil**

Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

**ARISTERRAZU**  
jateketa



Andatza auzoa AIA  
Tel. 943 83 45 21

**TAILER MEKANIKOA AUTO LAN**



Pelotari 5, Orio  
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko  
Gertuko Tailerra

**GABON TABERNA**



Preziosak  
Plater konbinatuak  
Ogitarteak

943 83 06 09



**sinergia** FISIOTERAPIA IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM  
TF.: 943 130 577 685 718 595

**LESIOAK:** BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAITIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

**TRATAMENDUAK:** TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MAGAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)

**HAIZE BERRI**  
tuberna-jateketa-kafetegia



Plater konbinatuak,  
bekatak,  
hamburgesak,  
rotinak,  
eguneko menua...

eta etxera eramateko zerbitzuak

Bida Kalea, Orio 1 943 83 21 21 (erabateko gaitasuna)

**LUXARBE**  
igeltseritza

Igeltseritza orokorra,  
denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu  
konpromisorik gabe

Lan txukuna  
eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

**XS**

erakuntza zerbitzuak  
errehabilitazioak  
obrak  
proiektuak  
txostenak  
ITE-ak  
eraikinen mantenua

arKitekTura  
hemikobarra 6, zarautz

Borja Agirresarobe Lopetegi  
**635 731 722**

**ITZIAR**  
kirolak



Tel. 943 83 31 03

**ODITZ**



Barrio zaharretako bizilagunak  
guztiz eta erabateko gaitasuna

tel. 943 83 00 89

**KAIUA**  
taberna



TUPI-TAPA, TIPI-TAPA, KAIUARA  
BOKATA EDERRAK JATERA

Arbako portua 35, behea  
TEL. 943 840 080

**KOLON TXIKI**  
alarriak eta  
jateketa



Herriko Eparantzeta, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44



# Haurrentzako zinema saioak hondartzan

**U**rtero bezala, udalak aire zabaleko zinema antolatu du udan. Uztailako eta abuztuko hainbat larunbatetan, gaztetxoenei zuzendutako filmak ikusi ahal izan ditugu hondartzako zelaian. *Bonkers, La Llave Magica, Luke eta Lucyeta Tras El Corazon Verde* bezalako filmak proiektatu dituzte udako gauak alaitzeko, batzutan gazteleraz, bestetan euskaraz. Argazkikoaren moduko irudiak utzi dizkigute udako zinema emanaldiek.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA

**Orioko Herri Ikastola**  
 Guraso Kooperatiba  
 ABESLARI KALEA, 8  
 TEL: 943 83 47 04  
 FAX: 943 13 09 38  
 orio@ikastola.net  
 www.oriokoikastola.net

**Zaragueta Herri Eskola Orio**  
 telefonoa: 943 89 40 52  
 e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

**ASADOR XIXARIO**  
 Euzko Gasteroaren Kalea, 2  
 Tel: 943 83 0119 - Orio

**bodegas ERRASTI, S. L.**  
 Eskualderako banatzailea  
 Zudugarai, Getariako txakolina  
 Ilagares, ardo gorri nafarra  
 Bodegas Gaillar: Señorío de Laurgain  
 Galhur eta Ardanegi.  
 Arabar Errioxako ardoak  
 Euzko Gudar, 46 - Orio • 943 83 03 86 / 83 69 62 • E-posta: bodegaserasti@euskalnet.net

**XABIER URRETABIZKALA**  
 - Instalazio elektrikoak  
 - TDT antenak  
 - Ategain automatikoak  
 60 urte zerbitzua ematen  
 943 83 17 74  
 Amantzale, 31 20810 Orio

**HAUR ETA HELDUENTZAKO JANTZIAK**  
**ROSA**  
 GARBINE ARRILLAGA  
 ARITZAGA KALEA, 2 • TEL. 943 13 35 43  
 10% DESKONTUA FAMILIA UGARJENTZAI

# “Antolatzaileen artean dagoen giro politikak asko laguntzen du”

## Miren Zuloaga eta Olatz Zuloaga

Aiako Festa Batzordeko kideak

Herritarren artean antolatzen dira festak, herri-  
tik eta herriarentzat egiten baitira. Miren eta  
Olatz Zuloagak 12 urte bete zituztenean festak  
beste alde batetik bizitzeko hautua egin zuten.

### OLATZARTOLA

Herritarren parte hartzearekin antolatzen dira Aiako Fes-  
tak, San Donatoak eta San Lorentzoak. Nerabe, gazte zein  
heldu, guztiek dute lekua festa Batzordean; eta guztien  
nahietara egokitutako egitaraua osatzen dute, oparoa.

#### Noiz eta nola sartu hasi zineten festen antolakuntzan?

Betidanik, txiki-txikitatik bizi izan ditugu festak. 12 urtere-  
kin jakin genuen herritarrek antolatzen zituztela eta jakin-  
mina piztu zitzaigun. Galdetzer a joan eta atea zabaldu zigui-  
ten, eta gu, sartu egin ginen.

#### Probatera sartu eta geratu egin zineten. Zergatik?

Festak beste ikuspuntu batetik bizitzen dituzu, zuk antola-  
tzen dituzunez ezberdina izaten da. Dagoen giroa polita da  
oso eta horrek asko laguntzen du; ez da pisutsua egiten.

#### Izaten duzue denbora festarako?

Ia 24 orduak aprobeztatzen ditugu; goizez, arratsalde eta  
gauez. Ardurak dauzkagu, eta parranda egin arren, bete egin  
behar ditugu. Gainera, Aiako festak bereziak dira oso. Herri-  
tarrok asko bizitzen ditugu, eta antolakuntzako kide izan ala  
ez, ekintza guztietara joaten gara. Jende asko ibiltzen da.

#### Nola antolatzen zarete?

Martxo inguruan gauean joko duten musika taldeak aukera-  
tzen ditugu, eta ondoren, bertsolariak. Abuztuan festa asko  
daude eta esku hutsik geratu baino lehen lotzen ditugu bi  
kontu horiek. Urte osoan zehar egiten ditugun festak antola-



KARKARA

tzen joaten gara jarraian. Udalarekin batera egiten ditugu,  
elkarlanean, eta ardurak banatzen ditugu.

#### Eta hori guztia zenbaten artean egiten duzue?

Aurten jende gehiago ibili da antolakuntzan, 30-40 pertsona  
inguru izan gara bileretan. Adin ezberdinetakoak, gainera,  
14 urtetatik 40 urte bitartera. Adin bakoitzarekin lotutako  
ekintzak antolatzea dakar horrek, denen parte hartzea sus-  
tatzea eta denen gustukoa izatea.

#### Egitaraua ere elkarlanean adosten duzue?

Iritzia eskatzen digute herritarroi Udalean, gu baikara fes-  
tan murgilduta egoten garenak, eta haiek ere aholkuak ema-  
ten dizkigute. Arreta jartzen dugu jendeari erakartzen dion  
horretan, jendea mugiarazten duen horretan. Festek, adibi-  
dez, asko irabazten dute erromeriekin, hortaz, gauean ho-  
rrelako musika taldeak ekartzen ahalegintzen gara.

#### Aurrekontuak mugak jarriko dizkizuen arren, egitarau oparoa osatzen duzue urtero-urtero.

Aia bezalako herri txiki batentzat izugarritzko festak antola-  
tzen dira, goizen goizetik hasita ilargia sartu arte ekintzak  
izaten ditugu. Boluntario asko egoten da eta horrek 24 ordu-  
ko festa antolatzea errazten du.

#### Lana gogor egin arren, merezi du antolatzeak?

Noski. Dena den, urte askotan lanean aritu den eta dabilen  
jendea dago, eta horiek gabe festak ez lirakeke posible izango.



## San Donatoak eta San Lorentzoak

Umeentzako eta familia guztiarentzako ekintzak antolatu ziren Aiako jaietan. Puzgarriak, jokoak, garagar-do dastaketa, sardina jana, mus txapelketa, herri kirolak... Noski, ez zen egun bakarrean ere falta izan trikitalarien kalejira buruhandiekin. Lehen egunean jantzi berriak aurkeztuta, apain-apain atera ziren.



## Adin eta kolore guztiak festa giroan gozatzuz

Elkarlanean antolatzen dira herriko festak, talde-lanean osatzen da egitaraua eta batasunean erabakitzen dira ekintzak. Adin guztiei egin zitzaien keinua, baita gustu guztiei ere. Egun eta gau, Aiako txokoak jendez eta giroz gainezka egon ziren, jaia gozatzuz.



# Usainen memoria

**Eta bueltatzean behin eta berriz galdera berbera. Ea egia ote den prentsak sinestarazi nahi digun mitoa. Jakin mina lagunek, familiartekoek, Errumania munduko gaizkile guztien habia ote den.**



Garbiñe Manterola

**N**aite dut udako usain trilogia: eguzkitako krema, izerdia, itsasoko gatza.

Usain collage horretatik azkena falta izan bazait ere, oporretan izan dut gauza berriak eta zaharrak aditzeko aukerarik.

Bizikletaz ibili naiz azken asteotan lagun mina aldean hartuta –bide batez, iztermotz, biba hi!–. Gozatu ederra hartu dugu begi bistan izan ditugun parajeekin eta mahai gainetako plater beteekin. Jaso dugu irribarre eta animo makina gure bidean. Drakularen letaginaren laztanik ez dugu sumatu lepo parean, baina bere eztenarekin gure odola zurrupatu duen moskito eta erle andana bai. Gorroto dut ezta.

Eta bueltatzean behin eta berriz galdera berbera. Ea egia ote den prentsak sinestarazi nahi digun mitoa. Jakin mina lagunek, familiartekoek, Errumania munduko gaizkile guztien habia ote den. Azken hiru asteetan han topatu dudana erekin zerrenda osatu diet: artoa, eguzki loreak, belardiak, Ceausescuren komunismoa ezin ezkuta dezaketen eraikuntza kolosalak, kolorez blai egindako elizak, harresiak, euriak ondutako egurrezko baserriak, haien aurrealdean paratuta-

ko ate erraldoiak. Eta lastozko txapelak, ilea tapatzen duten loredun zapiak, papar aldeko koloretako brodatuak. Eta haien atzean berriemaileek saldu nahi diguten irudi kirastutik urruti dagoena: jende zoragarria. Joan aurretik interesa piztu zigun herriari, herritarrei, esker onez esan diegu gerorarte.

Larre berdeak, etxe zuri, teila gorriak [...] Rupertorioko Martin Larralde kantua ezin burutik kendurik ibili nintzen opor egun batean. [...] Etxe elizetan otoitzak, betiko otoitzak [...] Artean errepede bazterretako zelaiak jendez beteta ikusi genituen. Eskuarea, sardea, belar pila, gurdia, meta. Kalekume batentzat belarretara joatearen ikastaro trinkoa. Baina egun hartan ez genuen izan gure alboan inor lanean eta bideak eliza atarira ekarri gintuenean jendearen arropen gogoraz ziguten zer egunetan bizi ginen. [...] Gaur igandea da [...]. Txikitan armairuan igandetako arropa izan zuen honek, usaindu ahal izan zuen hogeigarren, hemeretzigarren mendeko Euskal Herria ekialdeko lurretan. Eta akordatu nintzen norberaren herritik kanpora izen txarra izateak duen pisuaz.

Zaharrak berri, gazteen amorragarri.

**ANORGA TXIBI S.L**  
**KRISTALDEGIA**  
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza  
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak  
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Santi Barranco aseguru agentea

Aritzaga 2, 2. ezkerria ORIO

Tf.: 618 581 398 - 859 218 221 e-posta:

**SEGUROS BILBAO** | Grupo CATALANA OCCIDENTE



2009an Munduko txapeldunorde izan zen Oiana Blanco oriotarrak judoa utzi du . KARKARA

# “Judoak momentu, bizipen eta pertsona on asko eman dizkit”

## **Oiana Blanco**

Judoka ohia

Urte eta garaipen asko daramatza Oiana Blancok judoan, baina aurtan albo batera uztea erabaki du eta denbora libre gertuko jendearekin igarotzeari emango dio lehentasuna.



**OLATZARTOLA**

Lau urterekin jantzi zuen lehen aldiz judogia Oiana Blancok. Alpargatak jantzi eta euskal dantzak egiten ere ibiltzen zen, baita beste hainbat kiroletan ere. Urteak aurrera egin ahala erabaki bat hartu behar izan zuen, kirol bat hautatu. Horrela, judoan hasitako bidea jarraitzea erabaki zuen.

**Zergatik judoa?**

13 urterekin Espainiako Txapelketan bigarren postua lortu nuen, eta horrek nire erabakia asko baldintzatu zuen, lortutakoak indar asko eman baitzidan.

**Kirol gogorra dirudi...**

Ikasten den lehen gauza erorketak dira, ondo erortzen. Judoak gogorra dirudi, baina judokak egiten gara gogorrak.

**Mina baina gehiago zoriona eman dizu judoak, ezta?**

Momentu onak eta txarrak izan ditut, baina une txarrak atzean utzi eta onekin geratzen naiz. Gogoan ditudanak, batez ere, onak dira. Gainera, etxeokak beti alboan izan ditut, laguntzeko prest, eta horiek dira momentu zailtan aurrera egiten laguntzen dizutenak. Beti esaten dut bizitakoa errepi-katuko nukeela.

**Ibilbide luzea egin duzu. Nola gogoratzen dituzu hasiera garaia?**

Hasierako argazkiak eta lehenengo txapelketak ikustean oroitzapen oso onak etortzen zaizkit gogora. Jolasak egiten genituen garai haietan, gehienbat. Mutilak eta neskak elkarren aurka lehiatzen ginen, generoen arteko bereizketa geroago etorri zen. Dena den, ez zait kirol matxista iruditzen.

“Hasierako argazkiak eta lehenengo txapelketak ikustean oroitzapen oso onak etortzen zaizkit gogora.”





### **15 urterekin Espainiako txapeldun izan zinen. Mugarri bat izan zen garaipen hori zuretzat?**

Oharkabean iritsi zen garaipena. Hortik aurrera, pixkanaka-pixkanaka, nire lanbide eta bizitza bihurtu da judoa. Seriotasun handiagoarekin hartu arren, lehen egunean nuen ilusio hori ez zait behin ere itzali.

### **Ilusio berezia sentituko zenuen, poz izugarria, munduko txapeldunorde izatean, ezta?**

Beti ibiltzen nintzen dominengatik borrokan. 3. postua galduta etxera burumakur askotan joan naiz, baina burugogorra naiz eta dena ematen dut, eta 2009an txapeldunorde izatea lortu nuen. Munduko onenen artean kokatu nintzen. Gau hartan animatzera joan zirenekin ospatu nuen. Gogoan dut lo egitea kosta egin zitzaidala lortu nuen horrekin pentsatzen. Lorpek hark indar handia eman zidan eta nire buruarengan konfiantza izatea ekarri zuen. Munduko Txapelketa eta gero emaitza hobeak lortzen hasi nintzen.

### **Urte batera Europako Txapelketan hirugarren geratu zinen.**

Tatami barruan ez nintzen oso eroso sentitu egun hartan, baina, hala ere, domina eskuratu nuen. Mundialean lortutakoari indarra eman zion hirugarren postuak.

### **Eta geroago, joko olinpikoetan izan zinen.**

Esperientzia ikaragarria izan zen. Segundo guztiak gozatu nituen. Nik buruan txapelketa neukan, nire helburua tatami barruan zegoen. Dena eman nuen, borroka berdinduta bukatu zen. Berdinketa hausteko denboran galdu nuen. Emaitzak

pena handia eman zidan, baina egindako lanarekin pozik nengoen. Lehian disfrutatzea eta sentsazio onak izatea lortu nuen, eta niretzat hori oso garrantzitsua zen.

### **Txapelketak etxetik kanpo izaten zenituen. Askok bidaiatu duzu judoa dela eta...**

Gehienetan herrimina izaten nuen, etxean bezala ez bainaiz inon sentitzen. Baina, egia da leku polit asko eta kultura ezberdin asko ezagutu ditudala judoari esker.

### **Ordu asko bidaiatzen, eta ordu asko judoari eskaintzen.**

Nire bizitzaren ardatza izan da eta gauza asko utzi behar izan ditut albo batera, baina beti kontziente izan naiz hori zela nik nahi nuena. Lagunekin gutxi egon naiz azken urte horietan, baina beti gertu sentitu ditut. Eta mutila beti alboan izan dut, nirekin entrenatzen baitzuen. Alde batera utzitakoaz baina gehiago oroitzen naiz irabazitakoaz.

### **Eta orain, zuk uzten duzu albo batera judoa.**

Ama izan naiz eta ordutegia ez da batere aproposa txikiarekin egon ahal izateko. Oraingoz lanarekin ez dut denbora gehiegi, eta daukadan denbora libre, semearekin eta familiarekin egoteko aprobetxatu nahi dut. Gainera, senarra buru-beharri dabil triatloietan, eta berak ere denbora dezente behar du entrenatzeko.

### **Erabaki zaila izango zen, ezta?**

Judoak momentu, bizipen eta pertsona on asko eman dizkit, eta horietan garrantzitsuena, alboan daukadana, senarra. Oroitzapen on asko ditut, eta bizipen horiek guztiek zaildu egiten dute erabakia. Denborak esango du....



Peru Iparragirre

## Kopa okerra

**Atzo goizekoak garenok beti dugu zerbait ikasteko. Etengabe ari gara gure baitan mila dorre eta mila gaztelu egiten.**

ritsi da azkenean hainbeste esperotako eguna, ez dago gaurko egunaren zenbakia gorritz idatzita egutegian, gaurko egunak egun beltza behar zuen izan, baina aurkitu diogu erremedioa horri. Eguna bera kasik beltz amaitzen delarik, gaua da geratzen zaiguna. Eta zertan eman gaua, ez bada edanean, ia astero-astero orain arte egun dugun bezala. Hainbeste itxarondako eguna eta momentua iritsi eta ezin barrenak busti gabe geratu, ezin galdu aukera. Zazpi edo zortzi egun pasa dira azken legatza harrapatu eta memoria, mina eta ibilia galdu genituenetik. Ez dugu atzean, aprobetxatu gabe utziko bihotza epeltzeko aukera dugun eguna –eta gaua–.

Horrela urtebete; bi urte eman ondoren konturatzen gara eskola bezalakoa dela zurrutaren jolasa, denborak aurrera egin ahala, geroz eta gogorrago, geroz eta kontzienteago, baina ohituago, ausartago, ardotan zopatzeko gogoz, kasik beharrez, hilabetean bi, hiru, lau aldiz dobleko bidetik itzultzen gara etxera. Ezin ase gure penak, ezin ito gure ametsak, mahatsa hartu eta iturrirainoko buelta egitea da ikasitakoa, eta erritual hori da burutzen duguna.

Bai, burua kez beteta daukagu gazteok. Zintzurreraino beteta agurtzen dugu igandea, eguna jaiotzen da itsasoan, begiak lausotan, zutitzen saiatzen gara, gauzak argi ikusten –eta askotan ezin–. Gogoan sua, noraezean gabiltzalarik iluntasun tarteka argituan gure burua zauritzen dugu gradualki astean behin. Egun bat, bi egun, biharamunaz pasa eta gainontzekoak oroitu ezin dugunaren nostalgiaz, etorkizunaren egarri beti.

Konpasa galduta gabiltzala iruditzen zait, total eginda. Musikak kolpatzen gaitu, makilak lurra bezala, sardeak lastoa hartzen duen bezala altxatzen loak, esnatzean lurrera erortzen uzteko, beti ere zauri bat edo beste eta bestondo galantarekin. Baina ez da kezkatzeko adina, beti izan da horrela: edan txarrekoak garenak beti atxurtu gara.

Atzo goizekoak garenok beti dugu zerbait ikasteko. Etengabe ari gara gure baitan mila dorre eta mila gaztelu egiten. Horregatik, akaso, esnatzean nahiago ajea eduki eta mingaina lodi, buruan ametsen arrasto ahaztua, ahoan derrotaren zapore garratza eta esperantza sintetizatu diluituaren urrin nazkagarria sentitu baino.



**Garraio frigorifikoa**  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

**Ubegun industriagune, 4**  
Tel. 943 894 024  
Fax. 943 130 144  
20809 AIA - ORIO



**OSPAKIZUNA**



# Brontzea European

Sara Iparragirrek Europako Txapelketa jokatu du Hungarian 16 urtez azpiko Espainiako Selekzioarekin. Ez zuten finalera sartzea lortu baina, hiru eta laugarren postuak jokatzeko partidari Frantziako selekzioaren aurka 61-49 irabazi ostean, Brontzezko domina irabazi zuten. Txapelketa osoan zehar maila ona erakutsi eta, ongi merezita, podiumera igotzea lortu zuten neskek. Zorionak!

**HANDIK ETA HIEMENDIK**



“Euskarak irabazi du eskola, eta unibertsitatera ere iritsi da. Orain euskarak kalea irabazi behar du. Ziur nago gazteek euskara zabaltzeko beharra sentituko balute, denbora gutxian helburua beteko litzatekeela.”

**Antonio Campos**, Ohorezko Euskaltzaina, Urola Kostako Hitza, ekainaren 29a

“Zergatik ez ginateke izango berrogeita hamargarren nazioa nazioarteko ofizialtasuna lortzen? Lorpen historikoa izan da.”

**Jon Redondo**, esukadi.net, uztailaren 4a.

**gizarte kutxa**

ardoak, urdaikiak, gaztak, kontserbak, janari prestatuak

**etxeraino eramaten ditugu**

**943 83 09 84** aita lertxundi, 36 ORIO

**SU KIA**  
TABERNA, JATEETEA

Ona gis eta gero... barta KOPA eta TOPAZ!

- OILASKO ENINEAK ERAMATEKO
- EGLINEKO MENJA
- EGLINKARIAK
- OGIA

TEL. 845902 039  
ARABAMENDI SR. 1. BILKUA

**Abuztuko sarituak**

**Jabier Arruti Izeta**  
Goizako taberna  
**Izaskun Gaztelumendi Koka**  
Itzala Taberna

**30€**

**Arkupeko dendetan gastatzeko**

**K** *karkara.com*

**Eskaintza berria**  
**Eskaria**

# Orioko tostak belaunaldiz belaunaldi

Belaunaldi desberdinetako arraunlariak mahaiaren biran jarri dira, Manu Etxeberriaren gidaritzapean, atzoko eta gaurko arraunari buruz hitz egiteko. Ligaren egoera eta iraganeko gorabeherak izan dituzte hizpide.

## ARGAZKIAK: KARKARA

**P**atxi Sarasua, arraunlari beteteranoa, Orio A Eren sortzaileetako bat izan zen. Migel Angel Lizarralde *Altzerri* arraunlari familia batetik dator eta ondo ezaguna da Orion. Mikel Azkarate ondarroarrak hiru urte daramatza Mirotzaren brankan. Mahaiaren bueltan bildu dira hirurak Manu Etxeberriarekin, ongi ezagutzen dutenaz hitz egiteko: arraunaz.

**M. Etxeberria: Hasteko, Zarauzko estropadaz hitz egingo dugu. Zer nolako inpresioa izan zenuten?**

**M. Azkarate:** Ez zen estropada erraza izan. Bi jardunaldiko estropada izanik, eta aurreko egunean Kaikuk atera zuen aldearekin, ez zen posible izan bandera lortzea. Gu ligari begira irten ginen, Hondarribia harrapatzeko intentzioz. Eta bi bizkaitarrekin borrokan ibili ginen. Gogorra izan zen, baina oso polita. Ez genuen espero halako berdintasunik. Arraunlari gisa, lehia horiek motibagarriak dira.

**M. Etxeberria: Inoiz ikusi al duzue halako parekotasunik irteera-marran? Lau traineruetako edozeinek zuen irabazteko aukera.**

**M. Azkarate:** Aurreko urteko Kontxako Estropadako bigarren jardunaldia datorkit burura. Antzeko zerbait izan zen, azken ehun metroetara arte ez zen egon garailerik.

**M.A. Altzerri:** Horrelakoak gertatzen dira, ez oso sarri baina badira. Gertatzen dena estropada horretan oso lehia estua egon zela. Aulki mugikorrean ibili garenok horrelakoak bizi izan ditugu, segundo baten buruan hainbat ontzi sartzea sarriago gertatzen da.

**M. Etxeberria: Ligaren mailaren erakustaldi da hori, ezta? Lau traineru daude punta-puntan.**

**M. Azkarate:** Beste urteetan bat edo bi izan dira banderaren lehian beti ibilitakoak. Aurten lau traineru gaude eta horrek lehia estutzen du.

**M.A. Altzerri:** Orio, Hondarribia eta Urdaibai hor daude, eta Kaiku behetik gora dator.

**M. Etxeberria: Bi gipuzkoar eta bi bizkaitar, badirudi orain euskaldunok garela jaun eta jabe. Baina duela urte batzuk Astillero eta Castro ziren beti hor zirenak.**

**P. Sarasua:** Horiek duten kaltea da zainik ez dutela errotuta beren herrietan, Orion, Hondarribian eta horrelako klubetan gertatzen den bezala. Diruarekin ez bada, ez dute traineururik antolatzeke gaitasunik. Gertatzen dena da horiek zikloak izango dituztela, eta urte askotakoak. Dirua dutenean traineru ona aterako dute eta dirurik ez dagoenean ez. Orio bezalako taldeek ziklo laburragoak dituzte, jendearen arabera, arraunlari belaunaldiaren arabera.

**M.A. Altzerri:** Azkenean, Oriok *etxearen zimenduak* ongi errotuta ditu, horri esker ateratzen dira belaunaldi onak. Ni gaztea nintzenean, koadrila osoa hasi ginean arraunean, hori da hemen gertatzen dena. Horrela ateratzen dira talde onak.

**M. Etxeberria: Denboraldi hasieran gertatutakoa ere aipatzekoa da: zortzikoa ia Espainiako txapeldun izan zen, eta asteburu berean traineruak bandera irabazi zuen.**

**Altzerri:** Gure garaian desberdina zen. Bi aldeetan jarduten zuen koadrila berak.

**P. Sarasua:** Lehen, bi modalitateak talde berarekin egiteko aukera ematen zuen denboraldiak. Orain biak batera jokatzen dira ia, eta Oriok bietan ongi jarduteko taldeak ditu.

**M. Azkarate:** Aurten, beste urteetan ez bezala, zortzikotik trainerura pasatu direnak bi izan dira. Aurreko denboraldie-



tan sei arraunlari ziren bi taldeetan aritzen zirenak, eta sei pertsona talde bateko zati garrantzitsua diren bezala, bik ez dute hainbeste pisu talde osoan.

**M. Etxeberria:** **Traineruen urrezko aroan gaudela esan dezakegu; azken estropadak ikusi besterik ez dago. Baina istorio hau duela berrogeita hamar urte hasi zen, orduan hasi ziren oraingo tostako arraunaren oinarriak jartzen.**

**P. Sarasua:** Bai, baina orduan ez zen gertatu guk *hau egin behar dugu* esateagatik, ez baikenekien ezer. 1964an Ur-Kirolak taldearekin Espainiako txapelketara joan nintzen, estropada bat zer zen jakin gabe. Han aurkariei begira egoten nintzen, *ni hauek guztiak baino hobea nauk, eta Orion asko dira ni baino hobek* pentsatzen, *non dago akatsa?* esaten nion neurre buruari. Orduan Kluba sortzea erabaki genuen.

**M. Etxeberria:** **Traineruetan entrenatzeko modua asko aldatu da?**

**P. Sarasua:** Ni Juanito Altxerrirekin joaten nintzen txapelketetara, eta hizketan aritzen ginen. *Zer falta dugu Europa mailara iristeko?* Ikusi genuen, geu uretara sartu eta irteerara zuzenean joaten ginen bezala, besteak lehenago uretaratu eta alde batetik bestera aritzen zirela, estropada prestatzen.

Lehen gure entrenamenduak oso bestelakoak ziren: ibaira irten, ontzia prestatu eta hurrengo estropada izango zenaren minutuak egiten genituen arraunean, topera. Peter Karres teknika erakustera etorri zenean aldatu zen hori: Alemaniako selekzioaren entrenamenduak jarri zizkigun.

**M.A. Altxerri:** Korta etorri zenean aldaketa handia egon zen ordura arteko entrenamenduarekiko. Prestatzaile fisikoak eta medikua etorri ziren. Elikadura, proba fisikoak... beste prestatketa maila batekin hasi ginen, akaso ez gaur egungoa bezalakoa, baina aurrekoarekiko desberdintasuna nabarmena zen. Entrenamendu luzeak egiten genituen, pesak eta korrika eginez batez ere. Gaur egun gehiengoak ergometroan egiten dute. Lehen *atletak* ginen, denetik pixka bat egiten genuen; gaur egun espezifikokoak dira arraunlariak, gauza batean zentratu eta hori lantzen dute.

## ORIOK KONTXARI BEGIRA

**M** Azkarate: Kriak etortzen direnean, gogorra da baina barrutik lasai egon behar dugu, bada-kigu momentu onak etorriko direla. Argi dugu ezin dugula Bartzelonatik Kontxaraino puntan egon. Azken asteetan maila ona ematen ari garela uste dut. Eta orain, Kontxa gerturatzen ari da baina ezin dugu liga alde batera utzi.

Bandera eramateko maila emango dugula uste dut, erroztazioa egiteko mailako arraunlariak daude traineruan eta edozein konbinaziorekin talde konpetitibo bat atera daitenke. Horrek lagunduko digu azken txanpa honetan, baina auskalo zer pasatzen den. Lau talde ari dira maila ona ematen, eta Kontxan ez du beti onenak irabazten. Parekotasun horretan ere, kaleak eta tandak bezalako kanpoko faktoreen aurka ez dago zeregirik.

**P. Sarasua:** Nik Kontxari garrantzia gehiago ematen diot tradizioz, baina ligak badu berea. Estropada horretan, beste askotan bezala tripulazio onaz gain -hori badu Oriok-zortea ere beharrezkoa da. Nik berdintasuna eskatuko nuke, baina Donostian ezinezkoa da hori. Bandera bakarrentzako lau traineru daude lehia bizian, eta lau etako edozeinek irabaz lezake. Kontxan, estropada batetik bestera astebete egoteak errekupeartzeko eta aldaketak egiteko denbora ematen du.

**M. A. Altxerri:** Mikelek esan duen bezala, Kaiku eta Urdabai ez daude liga irabazteko lehian eta gehixeago jokatu dezakete Kontxan. Oriok eta Hondarribiak beste egoera bat dute. Gero, zorte txarrak ez izatea espero dugu. Nire us-tez sailkapeneko lehen postuetako traineruek tanda berean egon beharko lukete, baldintza antzekoak izateko.

tel/fax: 943 89 00 69

Bikaina kalea, 4 · 20800 ZARAUZ

ITURGINTZA, BEROGINTZA  
GASA, BAINU ERAKUSKETA

fresquetek kopiatuak jabe

WWW.FOTORAMIRO.COM

943 831048



610 697 668

ROSANA  
ARRUTI

ARGAZKI ESTUDIOA

Aita Lertxundi, 26

-Orio-

Telf.: 943 835845

fotorosanaarruti@gmail.com

KAXAIO

PLADURRA ETA IGELTSUA

Konponketa eta berrikuntza lanak  
pladurra eta igeltsuarekin

4josemaria@gmail.com

☎ 656 777 574

URAITZ

Lurrinologia  
jantzi-sagarriak

Euzkadi, 3 · Tfno: 943 83 18 97



Santxo Erreka Auzoa, 10

943 89 44 04

20809 AIA-ORIO

karrikatik karrikatik oinarrak,  
karrikatik erretetik ezinbestekoaMaider Arrillaga Sarasola - 138. Kol. zenb.  
Arrantzale 63 - 20810 · Orio · Gipuzkoa  
Tel. 943 575 361oinarri  
PODOLOGIA ZENTROA

MANTEROLA S/L

ESFERA ETA RETENTZIOKO  
BALBULAK

Santiago Auzoa - 18 postakutza

Tel: 943 830 743

Fno: 943 134 634

E-mail: tnmanterola@tmanterola.com

20810 ORIO - GIPUZKOA

Esfereko balbulak

ARMOR kalitate onarekin

arkaitz taberna

ori o

- Ogitartekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

- Terraza ederrarekin
- Siro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 83 16 57

azkue  
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7

20809 Aia-Orio

Tf/fax: 943 83 51 86

carroceriasazkue@hotmail.com



KARKARAN inoiz aritutako jende mordoak bildu ginen sanpedroetako bazkarian. KARKARA

# Alkatea, apaiza eta medikua

## Oroimenaren kutxa

**L**uskadi Irratian herriko medikuaren ahotsa entzun nuen, baina ez zen ari medikuntzaz Orioko sendagilea. Haren aurretik saharar batek bere hizkuntzan erreztatutako poesia euskaraz ematen ari zen Goretti. Automobila gidatzen nindoan, eta burua bueltaka hasi zitzaidan, gauzak elkarri lotzen. Eta gogora etorri zitzaidan, justu astebete lehenago, San Pedro egunean, jakin nuela herriko alkateak txikitan urtero irabazi zuela saria Udalak antolatu ohi duen literatur lehiaketan. Eta, osatzeko, herriko apaiza bertsolaria dugunez, pentsa liteke literatura-ren paradisuari bizi garelako: Literatorioan.

Badakigu literatura ez duela gizartea aldatuko; baina ipuinek aberastuta, poesiak jantzita eta bertsoek errimatuta, literatura gizakia alda dezake, eta gizakiak bakarrik alda dezake gizartea.

Uztailean hezkuntza-giroko ikastaro batean izan nintzen. Izenburu bitxia zuen: 'entrenamendu mentalaz eta ametsak aztertuz, zoriotsu'. Ikastaroan, alboan izan nituen Ikastolako eta Zaraguetako irakasle batzuk, denok ere zoriotsu izateko bidearen bila nonbait. Haiekin batera ikasi nuen gauzetako bat izan zen bizitzari positibo begiratu behar diogula, gure begiratuan egon ohi dela, gehienetan, munduko gauzen

ontasuna edo txarkeria, geuk erantsita.

Ikastaroan hori ikasita, horregatik ausartu naiz Goretti, Beñat eta Unairena artikulu honetara ekarrita, ondorioak ateratzen ere: ez gaude gaizki, ezin gara gaizki egon, medikua, alkatea eta apaiza literaturatik horren gertu, eta irakasleak zoriontasunaren bila dabiltzalarik.

Hari horretatik tiraka, San Pedro egunaren bezperan plazan izan genuen festa ederra ere etorri zitzaidan gogora. Jai giro ederra izan genuen, bisigurik ez, baina festa bikaina plaza herritarrez betean bai. Bazkal aurretik, gainera, antolatzailerik korrika jarri zituzten elkarrekin, elkarren ondoan, Aiako eta Orioko alkateak, EAJ eta Bildu, Ikastolako zuzendaria eta Zaraguetako irakaslea, arraunlaria eta futbolaria, neskak eta mutilak, gaztetxoak eta gazte izan zirenak... Bejondeiela antolatzailerik, hori da hori ondo lotzea! Jai hura gogoan, Lore Berasaluzek artikulu sentitua idatzi zuen oso. Karkarakideon plazako festako emozioak zituen hizpide, ondo idatzitako artikuluan. Eskerrak ematen zituen eta gogora ekarri Patxi, gure artean ez zegoen Iñarraneko mutila. Lore ere ikastaroan egon izan balitz bezala ari zen idatzi haren bidez: irribarretsu, positibo, eragin ona zabaltzen. Nik beste pausotxo bat eman nahi dut bide horretan: gogora ekarri nahi ditut Irati eta Iker ere, egun hartan gurekin ez zirenak eta, gutxienez, honelako aipamena eta oroitzapena mezezi dutenak.

Udarako ikastaroan barneratu zitzaidan positibo ibiltzea zabaldu egin behar dela, irribarre huts batek ere eragin handia izan dezakeela, ondo zabalduz gero. Ikastaroan elkarren aurkezpena egin nien han nirekin ziren Ikastolako eta Zaraguetako irakasleei, ez zuten elkar ezagutzen. Orain bai.

Idatzi dudana ez dakit ez ote den udako gau bateko amets zoroa; badaezpada, nirekin ikastaroa egin zutenei galdetuko diet ea nola interpretatzen duten amets hau.



Urtebete darama muralak soto zaharreko paretean. KARKARA

## Jendartea

### Oroitzapenean geratzea nahi duten lana

Efemerideen zerrendara gehitu behar da Garikoitz Murua eta Xabi Anunzibai Oriora etorri ziren eguna. Urtebete igaro da jada arrantzaleen soto zaharreko pareta mural oroigarri bat egiteko erabili zutela. Aranzadik, Auzolandegi programarekin, eraberritze plana jarri zuen martxan, eta "margolariak" elkarlanean aritzeko aukera izan zuten. Urtebete beranduago, Muruarekin elkartu eta gaiak hitz egin dugu.

Elkarrekin lan egiteko parada gutxitan izan dute, eta aukera egokia iruditu zitzaizkien. Bakoitzaren ideiak paperera pasa eta buruan zutena zirriborro bitartez landu zuten.

@ karkara.com/orio/1405511924735



## HASI TXIOKA

## #KontxakoBandera traola erabilia egin zure pronostikoa.



## Ekonomia

### Aiako Udalak eta Lur-Alkartasuna Kooperatibak hitzarmena sinatu dute

Lur-Alkartasuna Kooperatibak, Arrutiegia auzoan duen eraikinean lanak egiteko beharra duela eta, hitzarmena sinatu zuen atzo, abuztuaren 5ean, Aiako Udalarekin. Udalak Kooperatibari 2014an 25.000 euroko laguntza, eta 2015ean gehienez 20.000 eurokoa emango diola zehazten zuen hitzarmenak; azken kopuru hori, Kooperatibak lortu ditzakeen beste laguntzek baldintzatuko dute.

## Jendartea

### Goiko kaleko semaforoa martxan da

Goiko kalean gero eta auto gehiago ibiltzen zen eta horrek arazoak sortzen zizkien bizilagunei. Egoera hobetze aldera segurtasun neurriak hartu dira eta Obra eta Zerbitzuetako batzordeak ala erabakita, eta EAJren eta Bilduren baietza jasota, semaforoa jarri da Iturbide kalean. Matrikulak irakurriko ditu semaforoak, eta pasatzeko baimena dutenei piztuko zaie soilik berde koloreko argia. Semaforoa gorrian pasatzen dutenei 80 euroko isuna ipiniko zaie, larrialdi kasuetan salbu.

## Ingurumena

### Hondakin arriskutsuak birziklatzeko etxola

Uztailaren 28a geroztik Birziklapen etxola dago Aian. Urola Kostako Udal Elkarteak eta Aiako Udalak jarri dute. Etxola horretan etxeko hondakin arriskutsuak jasoko dira. Urola Kostan jartzen den bigarren etxetxo da, gehiago birziklatzeko helburuarekin. Aparkalekuan dago kokatuta etxola, gainontzeko edukiontzien aldamenean. Nahi denean utzi ahal izango dira etxeko hondakin arriskutsuak bertan.







Mapa baten bidez ematen du Oriori buruzko informazioa . KARKARA

## Turismoa

### Geoorio.com: Oriori buruzko webgune berria

Orioko informazio zehatza ematen du GeoOrio, Udalak egin duen webgune berriak. Bertan, mapa baten bitartez, udal-lurraldearen geoinformazioa aurki dezake erabiltzaileak.

Atal desberdinetan banatua dago.

Batetik gida praktikoa aurki daiteke, udal zerbitzu eta ekipamenduekin. Aisialdiarekin loturiko informazioa ere biltzen du webguneak: zer egin, zer bisitatu, non jan, non hartu ostatu...

Merkataritza gida zabala ere aurki daiteke, saltoki, zerbitzu profesional eta industriekin.

@ karkara.com/orio/1408439390529



2013ko Triatloi Udalekuak. NIK TRI

## Kirola

### Triatloi txikia egingo da Aian eta Orion

*Nik Tri* proiektuaren barruan Triatloi Udalekuak egingo dituzte iraila hasieran Txurruka aterpetxean. 10 eta 16 urte arteko haurrek triatloia gertutik ezagutzeko aukera izango dute sei egunez. Bertan igeriketa, bizikleta, oinezko lasterketa, trantsizioak eta elikadura bezalako gaiak landuko dituzte aisialdi ikuspegi batetik abiatu eta elite mailako kirolaren lehiakortasunetik urrunduz. Udalekuei amaiera emateko, Aia-Orio Triatloi Txikia egingo dute irailaren 6an. Bertan, udalekuetan parte hartu duten gaztetxoek gain, beste edozeinek eman dezake izena.

@ karkara.com/aiaorio/1408607957814

## San Donatoak eta San Lorentzoak objektibopean



@karkara.com/aia/1407573910614

## Aiako Santio Erreka auzoko festen argazki bilduma



@ karkara.com/aia/1406295474762

## Bisiguaren Festaren eta estropaden laburpen bideoa



@karkara.com/orio/1405886454026

**AZOKA**

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Salgai**

■ Estreintatu gabeko garbigailu berria salgai, 5kg-ko kapazitatea du. Prezioa 100€. Telefonoak 652754699 - 637392862.

■ Pisua salgai Abaro-mendin. 61 metro karratu eta 140 metro karratuko jardina. Bi logela, komuna, sala eta sukaldea. Erabat hornitua. 637419729

■ Apartamentua salgai Orioko Kale Nagusian. 195.000 eurotan. Eraikin berria, gela bat eta trasteroekin. Garajea aukeran. Dekorazio ezin hobea.

Ainhua: 627 638 776.

■ Etxebizitza salgai Orion. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta terraza. 82 metro koadro, terraza kontuan hartu gabe. Garajea aukeran. Benta Enea Etxea, Kale nagusia 28-3 esku-bia. Interesatuek deitu 689 555 091 zenbakira edo 943 83 59 43-ra.

■ Garajea salgai Orioko Goiko Klean -Almirante Oa-. Tf:688 69 14 45 edo 688 84 43 18

■ Pisua salgai edo alokagai Orion, Kale Nagusian. 2 logela, sukalde-egongela eta komuna.

Alokairua 500€, salmenta 140.000€ Interesatuak deitu 661 679 691 telefono zenbakira (Paki).

■ Hiru lekutako sofa eta aginte mandodun relax butaka salgai. 2,20 metro luze eta 0,96 zabal. 2,40x1,70ko alfonbra salgai, hainbat kolore eta irudi geometrikoe-kin. 943832219 15:00eta-tik 17:00etara deitu.

**Alokatu**

■ Logela alokagai. 100 metro karratu, leku onean. Tf: 657 535 299

■ Lokala alokagai. 38 metro karratu, komuna eta sukaldearekin. Gazteentzako aproposa, plazoleta baten ondoan. 635 731 708 -Oscar

■ Baserri bat alokagai Asteasun, bizitzeko moduan. Tf.: 615 790 965.

**Lan eskaintza**

■ Etxeko lanak egiteko emakume bat behar dut, urte guztirako. Ingelesa jakitea garrantzitsua. 699 781 963

**Lan eskaria**

■ Esperientzia eta erreferentzia dituen neska lan bila dabil. Haurren

nahiz helduen zainketa, baita beste edozein lanerako prest ere. Pape-rak araututa. 664 681 908

■ Gizonezkoa lanerako prest. Baimen guztiak ditut, eskorga eta zubi-garabiarenak barne. Lan-arriskuen prebentzio kurtsoa eginda. Tf: 657 535 299

■ Arratsaldetan lana egiteko prest dagoen emakumea. Etxeko lanak eta ume nahiz helduen zaintza. Interesa duenak deitu dezala 653508251 telefonora.

■ Lanerako gogoia eta esperientzia daukan emakumea, garbiketa eta zaintza lanak egiteko prest. 647059103 -Selvia Paredes

**Galdutakoak**

■ **Matxete** bat ahaztuen duela 15 egun Itxas-etxe atarian eta berreskuratu nahi nuke. Hartu duenak utz dezala faborez Lurdes arraindegian, bihotzez eskertuko diot.

**Beste batzuk**

■ Ekainetik aurrera trikitixa eta panderoko klaseak eskaintzen ditut. Ander Loretxu 689182840.

**ITSASOA**

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	09:08 eta 21:34	03:00 eta 15:24	☾
02	10:04 eta 22:40	03:52 eta 16:24	☾
03	11:18 eta ____	04:58 eta 17:41	☾
04	00:04 eta 12:44	06:16 eta 19:02	☾
05	01:29 eta 14:01	07:33 eta 20:14	☾
06	02:38 eta 15:03	08:38 eta 21:14	☾
07	03:35 eta 15:56	09:34 eta 22:05	☾
08	04:24 eta 16:44	10:23 eta 22:52	☾
09	05:09 eta 17:29	11:09 eta 23:37	☾
10	05:53 eta 18:14	11:54 eta ____	☾
11	06:36 eta 18:57	00:21 eta 12:38	☾
12	07:19 eta 19:41	01:04 eta 13:22	☾
13	08:03 eta 20:26	01:47 eta 14:08	☾
14	08:49 eta 21:16	02:32 eta 14:56	☾
15	09:40 eta 22:14	03:21 eta 15:51	☾
16	10:44 eta 23:28	04:17 eta 16:58	☾
17	12:05 eta ____	05:28 eta 18:18	☾
18	00:56 eta 13:27	06:48 eta 19:37	☾
19	02:10 eta 14:31	08:00 eta 20:38	☾
20	03:03 eta 15:18	08:54 eta 21:23	☾
21	03:43 eta 15:57	09:35 eta 22:00	☾
22	04:17 eta 16:30	10:11 eta 22:33	☾
23	04:49 eta 17:01	10:45 eta 23:04	☾
24	05:19 eta 17:32	11:17 eta 23:36	☾
25	05:48 eta 18:02	11:49 eta ____	☾
26	06:18 eta 18:33	00:07 eta 12:55	☾
27	06:49 eta 19:06	00:40 eta 12:55	☾
28	07:22 eta 19:41	01:14 eta 13:31	☾
29	07:59 eta 20:22	01:51 eta 14:13	☾
30	08:44 eta 21:13	02:34 eta 15:02	☾

**ZAINTZAKO BOTIKAK**

**IRAILA**

- 1ean, Larrañaga.
- 2an, Mutiozabal.
- 3an, Etxeberria.
- 4an, Iriarte.
- 5ean, Azaldegi.
- 6tik 12ra, Lasa.
- 13 eta 14an, Iriarte.
- 15ean, Etxeberria.
- 16an, Gallo Artiñano.
- 17an, Azaldegi.
- 18an, Zulaika.
- 19an, Iriarte.
- 20 eta 21ean, Larrañaga.
- 22an, Gallo Artiñano.
- 23an, Azaldegi.
- 24an, Zulaika.
- 25ean, Iriarte.
- 26ean, Larrañaga.
- 27 eta 28an, Mutiozabal.
- 29an, Azaldegi.
- 30ean, Zulaika.

- Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orrio
- G. Artiñano:** Zigorria kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz





## Outlet azoka asteburuan plazan

Urtero bezala, Arkupe elkarteak outlet azoka antolatu du abuztuaren 30 eta 31ko astebururako. Goizeko hamarretatik iluntzeko zortziak arte herriko saltoki desberdinetako postuak egongo dira herriko plazan. Haurrentzako ekitaldiak eta Xabi Arostegi DJ-aren musika egongo dira egun osoan azoka girotzen.

## Orio

### Stock Azoka

■ Abuztuaren 30etan eta 31n, Outlet Azoka 10:00etatik 20:00etara herriko plazan.

### Musika

■ Abuztuaren 29an, Dj Illarras eta Dj Rodri, 00:00etan, Kalakari Tabernan.

### Mendi Irteera

■ Irailaren 21ean Saioara irteera, Talai Mendi mendi elkarteak antolatuta.  
■ Eskalatzera irteera, data oraindik zehaztu gabe.

### Futbola

■ Irailaren 28an Orioko FT - Trintxerpe futbol partida, Mendibeltz zelaian.

### Liburu aurkezpena

■ Irailaren 24an, Iñaki Iturainen *Oroime-naren Uberan* liburuaren aurkezpena. Ordua eta lekua oraindik zehaztu gabe daude.

### Traste zaharrak

■ Irailaren 10ean eta 24an, traste zaharren bilketa, ohiko zabor ontzien ondoren. Atera aurretik udaletxera deitu behar da zer bota behar duzuen jakinarazteko. Tf.: 943830346.

## Aia

### Podologoa

■ Irailaren 27an, podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144.

### Kontrazaleko argazkia

Hondartza igandez. Hondartza zaharren argazkia.  
Egilea eta data ezezagunak

**TRAGOXKA**  
**TABERNA**  
*Danny & Angeles*



*Almirante Oa, 1 behe. ORIO | ERRESERBAK - Tf. 943 508 042*

**MIRANDA**  
AROTZ LERMAK S.L.

Tarina, ato, leiho, eskalera...  
behar diren arotz lanak  
egingo dizkizugu

Urtebete bidea, 1-669 42 32 70- ZARAUTZ

Kinkladenda - Ume arropa

**argine**

www.lasonet.com/argine  
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA  
UGARIEN TXARTELAREKIN

